BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
B I Z K A I A

# ALDIZKARI OFIZIALA

# BOLETIN OFICIAL

XI LEGISLATURA | XI. AGINTALDIA

**Serie B** Información, control e impulso | Informazinoa, kontrola eta sustapena **B Saila**

**XVII** Interpelación | Itauna **XVII**

Número 108a | Bilbo, 2022ko azaroaren 25a
Bilbao, 25 de noviembre de 2022 | 108a alea

**ASUNTO:** El programa Bizkaia Orekan Sakonduz.

**AUTOR:** López Odriozola, Urko

**Admisión a trámite**

La Mesa de las Juntas Generales, en su sesión de fecha 22 de noviembre de 2022, con relación al asunto de referencia, adoptó los siguientes Acuerdos:

**Tramitación:** Admitir a trámite.
**Calificación:** Conformidad con la calificación propuesta por el autor
**Órgano Destino de Tramitación:** Pleno de Control
**Procedimiento de Tramitación:** Normal
**Plazos:**
Inclusión de interpelación en el orden del día del Pleno transcurrido desde su presentación el plazo de: 9 días
**Otros acuerdos**
Ordenar Publicación en el BOJJGG
Ordenar traslado a los efectos de lo previsto en la regulación aplicable
**Regulaciones:**
Reglamento: Artículo 160 y sgts. Artículo 92

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 92 del Reglamento de la Cámara, se ordena su publicación para general conocimiento.

Sede de las Juntas Generales de Bizkaia, en Bilbao, 25 de noviembre de 2022.- La Presidenta de las Juntas Generales, **Ana Otadui Biteri**

**A LA MESA DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

Urko Lopez Odriozola, apoderado del grupo juntero EH Bildu, formula a la Diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko Urkiri, la siguiente INTERPELACIÓN en torno al programa Bizkaia Orekan Sakonduz, para su respuesta en el próximo Pleno de Control.

JUSTIFICACIÓN

La Diputación Foral de Bizkaia, en la anterior legislatura 2016–2019, puso en marcha el programa Bizkaia Orekan. En esta legislatura, como continuación del programa, el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia impulsa el programa Bizkaia Orekan Sakonduz, dentro del Programa de Desarrollo Comarcal 433121.

**GAIA:** Bizkaia Orekan Sakonduz programa

**EGILEA:** López Odriozola, Urko

**Izapidetzeko onartzea**

Aitatutako gaia dala-ta, hurrengo Erabagiak hartu ditu Batzar Nagusietako Mahaiak 2022ko azaroaren 22an izandako bileran:

**Izapidea:** Izapidetzeko onartzea
**Sailkapena:** Egileak proposatutako sailkapenagaz ados

**Organo hartzailea:** Kontrolerako Osokoa
**Prozedurea:** Arrunta
**Epea:**
Itauna aurkeztu zanetik Osokoaren gai-zerrendan sartzeko: 9 egun
**Beste erabagi batzuk**
BBNAn argitaratzeko agintzea
Bialtzeko agintzea, araudi aplikagarriak aurreikusitakoaren ondorenetarako
**Araudi oinarria:**
Araudia: 160. artikulua eta hurreng.. 92. artikulua

Guztiak horren jakitun egon daitezan, argitaratzea agintzen da, Batzar Nagusien Araudiaren 92. artikuluan zehaztutakoaren arabera.

Bilbon, Bizkaiko Batzar Nagusietako egoitzan, 2022ko azaroaren 25ean.- Batzar Nagusietako Lehendakaria, **Ana Otadui Biteri.**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO MAHAIARI**

Urko Lopez Odriozola EH Bilduko batzarkideak, Bizkaia Orekan Sakonduz programari buruzko ITAUNA egiten dio Ainara Basurko Urkiri Ekonomia Sustatzeko Diputatu andreari, hurrengo Kontroleko Osoko Batzarrean erantzuteko.

ARRAZOIKETA

Bizkaiko Foru Aldundiak, aurreko legegintzaldian, 2016–2019 urteetan, abian jarri zuen Bizkaia Orekan programa. Legegintzaldi honetan, programa horren jarraipen moduan, Bizkaia Orekan Sakonduz programa bultzatzen du Bizkaiako Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailak, 433121 Eskualde garapena Egitarauaren barruan.

En julio del año pasado, en la Comisión de Promoción Económica, la Diputada Dña. Ainara Basurko Urkiri informó sobre el programa Bizkaia Orekan Sakonduz, explicando los resultados de 2019 y 2020.

Como ella misma afirmó, el programa Bizkaia Orekan Sakonduz tiene 5 objetivos estratégicos:

1. Avanzar en la competitividad de las empresas industriales y de servicios avanzados de todo el Territorio de Bizkaia.

2. Desarrollar competencias en los agentes de desarrollo local y adecuar las políticas de promoción a las especificidades empresariales de cada comarca.

3. Articular una gobernanza multinivel.

Y otros dos objetivos estratégicos transversales:

4. Revisión constante y evaluación de la estrategia de los resultados que se van obteniendo.

5. Comunicación de los objetivos y la difusión de los mismos para fortalecer la dinámica Bizkaia Orekan Sakonduz y la labor de los agentes comarcales junto con la Diputación.

EH Bildu otorga una gran importancia al programa Bizkaia Oreka Sakonduz, y lo consideramos como un objetivo imprescindible para impulsar un desarrollo social y económico equilibrado de las comarcas vizcaínas.

Por ello, echamos en falta la materialización del cuarto objetivo estratégico. Disponer de una evaluación de lo que se hace es imprescindible para saber si se cumplen los objetivos del programa o si debemos hacer algún cambio.

Conocemos cuáles son los proyectos que se impulsan en cada comarca, cuántas empresas o asociaciones participan, pero la evaluación de resultados no la hemos visto en ningún sitio.

Por su parte, el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales de la Diputación Foral de Bizkaia ha impulsado el programa "Herri txiki, aukera handi", en Arratia y Mungialdea, con el objetivo de extenderlo a otras comarcas, entre ellas Busturialdea. Los dos programas, “Bizkaia Orekan Sakonduz” y “Herri txiki, aukera handi”, están dirigidos a las comarcas y podría haber un cierto choque entre ambos, o podrían entenderse como complementarios,

En este sentido, formulamos la siguiente INTERPELACIÓN a la Diputada de Promoción Económica, Ainara Basurko Urkiri:

- ¿Han llevado a cabo la evaluación del programa Bizkaia Orekan Sakonduz? ¿Cuáles son los indicadores que han utilizado para ello?

- Tras los cuatro años de vida del programa Bizkaia Oreka Sakonduz, ¿cuál sería en su opinión la fotografía de las comarcas vizcaínas?

- ¿Qué tipo de colaboración existe con el Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales para entender estos dos programas de forma complementaria?

Bilbao, 17 de noviembre de 2022

**Urko López Odriozola,**
Apoderado del grupo EH Bildu

**Beatriz Ilardia Olangua,**
Portavoz del grupo EH Bildu

Iazko uztailean, Ekonomia Sustatzeko Batzordean, Ainara Basurko Urkiri Diputatu Andreak Bizkaia Orekan Sakonduz programari buruzko informazioa eman zuen 2019 eta 2020ko emaitzak azalduz.

Berak aipatu zuenez, Bizkaia Orekan Sakonduz programak 5 helburu estrategiko ditu:

1. Bizkaiko Lurralde osoko industria- eta zerbitzu-enpresa aurreratuen lehiakortasunean aurrera egitea.

2. Toki-garapeneko eragileen gaitasunak garatzea eta sustapen-politikak eskualde bakoitzeko enpresa-berezitasunetara egokitzea.

3. Maila anitzeko gobernantza-eredua sustatzea.

Eta zeharlerrokoak diren beste bi helburu estrategiko:.

4. Lortzen ari diren emaitzen estrategiaren etengabeko berrikuspena eta ebaluazioa.

5. Helburuak jakinaraztea eta zabaltzea, Bizkaia Orekan Sakonduz dinamika indartzeko eta eskualdeetako eragileek Aldundiarekin batera egiten duten lana indartzeko.

EH Bilduk garrantzia handia ematen dio Bizkaia Orekan Sakonduz programari, hain zuzen Bizkaiko eskualdeen garapen sozial eta ekonomiko orekatua bultzatzea ezinbesteko helburutzat baitugu.

Horregatik, faltan botatzen dugu laugarren helburu estrategikoaren gauzapena. Egiten denaren ebaluazioa izatea ezinbestekoa baita ea programaren helburuak betetzen diren jakiteko edo aldaketaren bat egin behar dugun erabakitzeko.

Ezagutzen ditugu zeintzuk diren bultzatzen diren proiektuak eskualde bakoitzean, zenbat enpreak edota elkartek hartzen duten parte, baina emaitzen ebaluazioa ez dugu inon ikusi.

Bestalde, Bizkaiko Foru Aldundiaren Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Sailak bultzatu du “Herri txiki, aukera handi” programa Arratian eta Mungialdean, eta asmoa du beste eskualdeetara zabaltzeko, tartean, Busturialdea. Bi programek, “Bizkaia Orekan Sakonduz” eta “Herri txiki, aukera handi”, eskualdeetara zuzenduta daude eta nolabaiteko talka egon daiteke bien artean, edo osagarri moduan uler daitezke,

Horren harira, honako ITAUNA egiten diogu Ainara Basurko Urkiri Ekonomia Sustatzeko Diputatu andreari:

- Egin ahal duzue Bizkaia Orekan Sakonduz programaren ebaluazioa? Zeintzuk dira horretarako erabili dituzuen adierazleak?

- Ia lau urte iraun duen Bizkaia Orekan Sakonduz programaren ondorioz, nola irudikatuko zenuke Bizkaiko eskualdeen argazkia?

- Zein motatako elkarlana dago Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Sailarekin, aipatu bi programa horiek osagarri moduan ulertzeko?

Bilbon, 2022ko azaroaren 17an

**Urko López Odriozola,**
EH Bildu taldeko batzarkidea

**Beatriz Ilardia Olangua,**
EH Bildu taldeko taldeburua